

Txikle baten abentura

Irene Salvoch Goya
DBH 1. eta 2. kurtsoak 1. saria
Iruñeko Iturrama BHI

Han zegoen plastikozko pote biribil batean sartuta beste txikle batzuen ondoan ia arnasa hartu ezinik, gutxienez potearen kanpoaldea zegoen eta kanpoaldekoa ikusteko gai zen. Pitu, gure protagonista klorofilazko txikle bat zen. Txinan fabrikatua bazegoen ere, Iruñeko Alde zaharreko “Gauzak” izeneko denda batean zegoen salgai. Pitu oso positiboa zen, beti gauza txarren alde ona bilatzen baitzuen, oso atsegina zen eta pertsona guztiekin oso ongi portatzen zen.

Negua zen eta kanpoaldea hotz handia egiten zuenez oso gustura zegoen dendan egiten zuen beroarekin, bat-batean dendako atea zabaldu zen eta hara non neska eder bat sartu zen dendan, altua zen, begi berde urdin oso politak zituen, urre koloreko ile nahiko luzea zuen eta botin zaratsatu batzuekin zihoan. Atea itxi eta agurtu egin zuen, txikleen aldera joan zen zuzen-zuzen bi aldiz pentsatu gabe.

Halako batean esan zuen:

-Aizu! Mesedez klorofilazko txikle bat!

Dendako gizonak txiklea eman zion, ordaindu ondoren eskertu eta agur esanez irten zen dendatik.

Gure protagonistari ez zitzaion neska batere gustatzen eta Merkaderestik zihoazen bitartean ideia bat izan zuen. Hortik etxerako bidean neskaren poltsikotik kalera botatzen saiatuko zen. Lehenengoan botatzea lortu zuen, baina neska konturatu orduko lurretik jaso zuen, bigarren aldian berdin gertatu zen baina lurretik jaso zuen, eta ondoren poltsikoa kremailearekin itxi zuen. Pituk ez zuen irtenbiderik handik ateratzeko.

Azkenean Maitane eta Pitu etxera iritsi ziren, Maitane bere etxeko-lanak egiten hasi zen, ia bukatzeaz zegoenean txiklea poltsikoan zuela oroitu zen.

Orduan kontu handiz papertxoak kendu zion eta txiklea jaten hasi zen. Ordu erdi pasa zenean bere ama sartu eta afaltzeko prestatu orduko afaltzera joan zen, sukaldean txiklea zakarrontzira bota ordeaz nahi gabe txakurraren platerera bota zuen.

Pitu hor zegoen txakur janari pila-pila baten artean, poliki-poliki leku nazkagarri horretatik ateratzen saiatu zen baina alferrikakoa izan zen. Une hartan txakurra etorri eta janaria mugitzen hasi zen. Hor Pitu zegoen, erdi zorabiatuta, txakurrak nahi zuen janaria hartu zuenean mastekatu eta irentsi egin zuen. Baina hor zegoen Pitu txakurraren barrualdean!

Hurrengo goizean Maitane ikastolara joan aurretik txakurra ateratzera joan zen. Txakurrak bere egin beharrekoak egin zituen eta Pitu belardian kanporatu zuen. Gure protagonistak bere lasaitzeko unea zela pentsatu zuen baina orduantxe bertan gizon bat zapaldu eta bere oinean eraman zuen. Gure txikitxo lurrera eusten saiatu zen baina ezinezkoa izan zen.

Hurrengo bi egunetan oin batetik bestera egon zen, autobus batean, ondoren hegazkin batean.

Azkenean Londreseko Big Ben eta noria ikusi zituen. Aho zabalik gelditu zen.

Azkenean txikle ez zen gehiago itsasten eta lurrean gelditu zen arratsalde batez.

Ilunabarrean ume bat txiklearengana hurbildu zitzaion. Umeak pobrea zirudien, arropa nahiko apurtua zeraman, begi urdin oso oso politak zituen eta ile errubioa, lurretik txikle kontu handiz hartu eta txiklez bete-betea zegoen horma batera eraman zuen, han klorofilazko beste txikle batzuekin itsatsita utzi zuen. Azkenean denak pozik gelditu ziren. Horma hori oso famatua egin zen eta umeari diru asko eman zioten, gainera ikaragarri famatua egin zen, txikle bat gehiago jarrita 99 999 999 tik 100 000 000 izatera pasatu baitzen horma.